

Diskoak, bideoak eta liburuak argitaratzeko diru-laguntzen oinarriak

2017

Deialdi honen guztizko diru-kopurua 100.000 € da

Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak honako eskaera hauek aztertuko ditu:

DISKOENTZAT:

- Disko bat autoeditatuko duten SGAEren bazkideak diren egileak; disko horretan haiek egindako lanak sartuko dituzte. Kasu honetan, enpresari autonomo gisa fonografia-produktore lanak egiten dituzten egileek honakoak bete behar dituzte: legeak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak; halaber, dagokien erregimenean alta emanda egon behar dira.
- Autoeditatuko ez duen SGAEren bazkidea den egilea, baina diskoetxe batekin kontratu bat sinatuko duena; horretarako, bere lanak dituen disko bat ustiatzeko dagokion kontratua sinatuko du.
- Helburu sozial gisa diskografia-produkzioaren eta/edo diskografia-banaketa-jarduera duten pertsona juridikoak (merkataritza-sozietateak, fundazioak eta/edo elkarteak). Aurkeztu ahalko dira eskaerarekin batera sartutako proiektua SGAEren egile bazkideen erreperatorioko lanak dituen disko bat produzitzeko eta/edo banatzeko bada.

Nolanahi ere, aldez aurretik aipatutako diskoetarako laguntzen eskatzaile guztiek aurkeztutako diskoak baldintza hau bete beharko du: diskoko errepertorioaren gutxienez % 50 aldez aurretik euskarri komertzialetan grabatu gabeko lanak izan behar dira. Euskarrian edozein generoko edo musika-adierazpeneko lanak sar daitezke.

Halaber, laguntza eskatzen dutenek, enpresari autonomoak (pertsona fisikoak) edo juridikoak izan, eskaera egiteko mementoan eta gutxienez 2018ko martxoaren 31ra arte, honako hau eduki behar dute: diskografia-euskarriaren ustiapen-eskubideen % 100eko titulartasuna.

BIDEOENTZAT:

- Bideo bat editatuko duten enpresari autonomoak diren SGAEren egile bazkideak; bideo horretan haiek egindako lanak sartuko dituzte. Kasu honetan, enpresari autonomo gisa bideografia-produktore lanak egiten dituzten egileek honakoak bete behar dituzte: legeak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak; halaber, dagokien erregimenean alta emanda egon behar dira.
- Helburu sozial gisa ikus-entzunezko produkzioa duten eta SGAEren egile bazkideen errepertorioa duen bideo bat argitaratzeko proiektu bat aurkeztu duten pertsona juridikoak.

SGAEren errepertorioa duen bideoan sartutako lana aldez aurretik euskarri komertzialetan grabatu gabekoa izan behar da. Halaber, laguntza eskatzen dutenek, enpresari autonomoak (pertsona fisikoak) edo juridikoak izan, eskaera egiteko mementoan eta gutxienez 2018ko martxoaren 31ra arte, honako hau izan behar dute: bideografia-euskarriaren ustiapen-eskubideen % 100eko titulartasuna.

LIBURUENTZAT:

- Haiek egindako liburu bat editatuko duten enpresari autonomoak diren SGAEren egile bazkideak. Kasu honetan, enpresari autonomo gisa liburu-argitaratzaile lanak egiten dituzten egileek honakoak bete behar dituzte: legeak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak; halaber, dagokien erregimenean alta emanda egon behar dira.
- Bere liburua autoeditatuko ez duen SGAEren bazkidea den egilea, baina argitaratzaile batekin argitaratze-kontratu bat sinatuko duena; horretarako, liburua argitaratzeko dagokion kontratua sinatuko du.
- Helburu sozial gisa liburuak argitaratzea duten eta SGAEren egile bazkideen errepertorioa zabaltzen lagunduko duen liburu bat argitaratzeko proiektua aurkeztzen duten pertsona juridikoak (merkataritza-sozietateak, fundazioak eta/edo elkarteak).

Edonola ere, argitaratuko den lana ezingo da aldez aurreko argitalpen komertzialetan argitaratuta egon.

ESKATZAILE GUZTIENTZAKO BALDINTZA KOMUNAK:

Eskatzaileek ezingo dute, SGAE Fundazioak eskainitako diru-laguntza guztien artean, laguntza bat baino gehiago jaso urte berean. Salbuespen bakarra diru-laguntza hau izango da: Nazioartean musika sustatzeko bidaientzako diru-laguntzak. Hori jasotzea bateragarria da beste diru-laguntzekin.

Berezko nortasun juridikoa duten erakundeek laguntza bat baino gehiago jaso ahalko dute deialdi honetan, betiere, SGAEren bazkide desberdinen proiektuetarako badira.

Ez dira aintzat hartuko SGAEko ordainketak egunean ez dituztenen eskaerak; hain zuzen ere, honako hauenak: fonografia-produktoreenak, bideografia-produktoreenak eta argitaratzaileenak, enpresari autonomoak zein nortasun juridikoko enpresariak izan.

Diru laguntza hauen ondoretarako, SGAEren errepertoriotzat jotzen dira SGAEren egile bazkideek sortutako lanak.

Bigarrena:proiektuen tipologia

Deialdi honetan parte hartu ahalko dute:

- dagoeneko produkzio fonografikoa amaitu duten proiektu diskografikoek, edizioa 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra bitartean egiten bada. Horrela, SGAE Fundazioaren Plan Zuzentzailean agindutakoa betez, diskoaren edizio-fasea babesten da eta ez produkzio-fasea. Diru-laguntzarako gastu konputagarriak diskoaren edizioari dagozkionak bakarrik izango dira (hala nola, fabrikazioa, libretoaren edizioa, promozioa eta merkaturatzea). Fonogramako errepertorioa SGAEko bazkideak diren autoreena izan behar da.

Proiektu diskografikoa deskribapen batekin eta argitaratzearen datekin aurkeztu beharko da, proiektuaren aurrekontu osoarekin eta fonogramaren edizioa ziurtatzen duten kontratu edo dokumentuekin batera. Era berean, fonograma formatu digitalean bidali beharko da SGAE Fundazioaren posta-helbidera.

- dagoeneko ikus-entzunezko produkzioa amaitu duten proiektu bideografikoek, edizioa 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra bitartean egiten bada. Horrela, SGAE Fundazioaren Plan Zuzentzailean agindutakoa betez, diskoaren edizio-fasea babesten da eta ez produkzio-fasea. Diru-laguntzarako gastu konputagarriak bideoaren argitaratzeari dagozkionak bakarrik izango dira (hala nola, fabrikazioa, libretoaren edizioa, promozioa eta merkaturatzea). Bideoako errepertorioa SGAEko bazkideak diren autoreena izan behar da.

Deialdi honetan lan dramatikoaren, koreografikoaren eta musikalen euskarri diren bideoak argitaratzeko eskaerak ere onartuko dira, bideoaren argitaratzeak SGAEren errepertorioa sustatzen laguntzen badute.

Proiektu bideografikoa deskribapen batekin eta argitaratzearen datekin aurkeztu beharko da, proiektuaren aurrekontu osoarekin eta bideogramaren argitaratzea ziurtatzen duten kontratu edo dokumentuekin batera. Era berean, bideograma formatu digitalean bidali beharko da SGAE Fundazioaren posta-helbidera.

- dagoeneko originala idatzi duten argitaratze-proiektuek, argitaratzea 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra bitartean bada. Diru-laguntzarako gastu konputagarriak liburuaren argitaratzeari dagozkionak bakarrik izango dira, eta ez idazketa originalarenak. Liburuak honako baldintza hauek bete behar ditu: SGAEren errepertorioa edukitzea (gidoiak, lan dramatikoak, hitzak eta abar), SGAEko autore bat edo autore talde bat sustatzen laguntzea edo SGAEko bazkideek lana egiten duten kreaziozko esparruaren ikerketari buruzkoa izatea.

Argitaratze-proiektu deskribapen batekin eta argitaratzearen datekin aurkeztu beharko da, proiektuaren aurrekontu osoarekin eta liburuaren argitaratzea ziurtatzen duten kontratu edo dokumentuekin batera. Era berean, originala formatu digitalean bidali beharko da SGAE Fundazioaren posta-helbidera.

Hirugarrena: SGAE Fundazioaren ekarpena

Eskaera bakoitzari egokituko zaion zenbatekoa ezingo da 2.500 € baino handiagoa izan diskoen eta bideoen kasuan eta 3.000 € baino handiagoa liburuaren kasuan (zergak barne). Ordainketa irizpide hauen zortzigarren klausulan jartzen duenaren arabera egingo da, hitzarmenera lotutako ordainketa-dokumentu baten bidez eta dagozkion PFEZaren atxikipenak aplikatuz. Kantitate horiek ezingo dira SGAEko eskubideak ordaintzeko erabili.

Laugarrena:dokumentazioa

Eskaerekin batera honako agiri hauek egon beharko dira:

1. Eskaera-inprimakia dagokion moduan beteta.
2. IFZ/AIZ/pasaporte/IFKren kopia.
3. Pertsona juridikoek hau aurkeztu beharko dute nahitaez:
 - a. IFK txartelaren kopia.
 - b. Pertsona juridikoaren (merkataritza-sozietatea, elkarte edo fundazioa) eratzeko eskrituraren kopia ziurtatua; pertsona juridikoa behar bezala inskribatuta egon behar da dagokion erregistroan (Merkataritza Erregistroa, Elkarleen Erregistroa edo Fundazioen Erregistroa).
 - c. Merkataritza-sozietateen kasuan, indarreko administratzaileen kargua agertzen den eskrituraren kopia ziurtatua.
 - d. Elkarleen eta fundazioen kasuan:
 - i. Elkarleen edo fundazioaren indarreko estatutuak.
 - ii. Elkarleen Erregistroaren ala Fundazioen Erregistroaren ebazpena (kasu bakoitzean dagokionarena), eta zuzendaritza-batzordearen (elkarleak) edo patronatuaren (fundazioak) indarreko karguen inskripzioa.
4. Autoeditatu beharrean hirugarren batekin diskoa, bideoa edo liburua argitaratzeko akordio bat lortuko duten egileen kasuan, diskografia-kontratuaren, bideografia-produkzioaren edo liburuaren argitalpenaren kontratuaren kopia aurkeztu beharko dute. Kontratua ez badute eskaera aurkezteko egunerako sinatu, asmoen gutuna aurkeztu beharko dute, fonografia-produktoreak, bideografia-produktoreak edo liburu-argitaratzaileak sinatuta, kasuaren arabera.
5. Eskatzailearen Curriculum vitae
6. Diru-laguntza eskatu duenaren proiektuaren deskribapena eta kronograma.
7. Gastuen aurrekontu zehaztua.
8. Beste erakunde batzuen parte-hartzearen ziurtagiria, hala badagokio.
9. Autorearen edo oinordekoaren babes-gutuna, eskatzailearekin bat ez badator.
10. SGAEk onartutako lanen erregistroen kopiak, diskoetarako diru-laguntzen kasuan.
11. Soinu grabaketa formatu cd, dvd edo bideoa material edo gidoi formatuko kopia bat ondoko helbidera bidali beharko da: SGAE Fundazioa - Diskoen, bideoen eta liburuaren ediziorako diru-laguntzen deialdia Bárbara de Braganza kalea 7 28004 Madril
12. Egile edo interpretatzaile eskatzaileen baimena, SGAE Fundazioak deialdi honen esparruan haien datu pertsonalak erabil ditzan. Eskatzaileak pertsona juridikoak badira, ordezkatzan ditzuten egileen edo interpretatzaileen baimena aurkeztu beharko dute, SGAE Fundazioak deialdi honen esparruan haien datu pertsonalak erabil ditzan.

Bosgarrena:ebaluazioaren irizpideak

Jasotako proiektuak ebaluatzeko, bereziki balioetsiko dira SGAE Fundazioaren Plan Zuzentzailean bildutako alderdiak (Fundazioaren webgunean kontsultatu daitezkeenak); horien artean, ondore horietarako, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

1. Autorearen eta gizarte osoaren arteko harremana sustatzea, autore-eskubidearen gaineko pedagogia soziala suspertzea eta kultura eskuratzeko aukera bultzatzea.

2. SGAE Fundazioak lantzen duen erreperitorio osoan, adierazpen artistiko berriak eta diziplina anitzeko proiektuak sustatzea.
3. Beste instituzio eta erakunde batzuekin lan egitea.
4. Emakume autoreen partaidetza bultzatzea.

Horrez gain, aurkeztutako aurrekontuen arabera proiektuak daukan bideragarritasuna ere hartuko da kontuan, baita gizartean zein kulturaren izan dezakeen oihartzuna eta, hala badagokio, laguntza hauen bidez esleitutako baliabideen ezarpena ere.

Seigarrena:eskaeren aurkezpena eta epea

1. Eskaeraren inprimakia SGAE Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri: www.fundacionsgae.org. Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira.
2. Diskoak, bideoak eta liburuak argitaratzeko laguntzak eskatzeko epea ekainaren 29an (osteguna) hasiko da, eta zabalik egongo da irailaren 7ko (osteguna) 24:00ak arte. Ez dira aintzat hartuko epe horretatik kanpo heltzen diren eskaerak.
3. SGAE Fundazioak eskaera guztiak jaso izana adieraziko du, eta falta diren agiriak jakinaraziko dizkie dokumentazio osoa aurkeztu ez dutenei. Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia ez dagoela adierazten dieten eskatzaileek 15 eguneko gehieneko epea izango dute eskaera zuzentzeko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik; hau da, 2017ko irailaren 22ko (ostirala) 24:00ak arteko epea izango dute. Eskaera adierazitako epean zuzentzen ez badute, ez da aintzat hartuko.

Zazpigarrena:eskaeren ebazpena eta prozedura

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da arauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.
2. Batzordeak laguntzak emango dituen erabakiko du eta erabakia interesdunei idatziz jakinaraziko die.
3. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.
4. Batzordearen ebazpena aldekoa bada, agiriak aldean artean sinatuko den hitzarmenaren atal bereizezina izango dira, eta ez dira itzuliko.

Zortzigarrena:elkarlanaren formalizazioa

SGAE Fundazioak eta proiektua onartu zaion eskatzaileak elkarlanerako hitzarmen bat izenpetuko dute. Horrek, halaber, dokumentu honetan eskatutako irizpideak bete beharko ditu eta jarraian zerrendaratuko dugun informazio hau:

1. Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
2. Proiektuaren hasieraren eta amaieraren epea.
3. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.
4. Ordaintzeko modua.
5. Proiektuaren jarraipena (txostena, ebaluazioa, SGAE Fundazioaren irudi kooperatiboa daukan materiala, amaierako memoria).

6. SGAE Fundazioari diru-laguntzaren bidez editatutako fonogramari buruz informatzeko konpromisoa. Horri gehitu behar zaizkie Erreproduktzio Mekanikoaren sailak emandako faktura (autore-eskubide gisa euskarri fisikoaren fabrikazioarengatik eta distribuzioarengatik) eta sail horrek emandako lizentzia aipatutako faktura ordaindu ostean.

Hitzarmena laguntza eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoarekin formalizatuko da, eta horrek arau hauen lehen klausulan ezarritakoa bete behar du.

Bederatzigarrena: konfidentzialtasun-betekizuna eta datu pertsonalak babestea

Proiektuaren gestioan alderdiek emango dituzten datu pertsonalak konfidentzialak izango dira eta ezin izango zaizkie bitartekoei ezagutzera eman.

Ezingo dira erabili ezarritako helburuetarako ez bada, indarrean dagoen legeriak ezarritako salbuespenak ez ezik. Borondatez eman dituzten datuak fitxategi batean gordeko dira, SGAE Fundazioa izango da horien arduraduna eta AEPDko (Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) Datuak Babesteko Erregistro Nagusiari jakinaraziko zaio. Datu Pertsonalen Babeserako Funtsezko Eskubidea duenak Sartzeko, Zuzenketa, Ezerezteko, Aurka-egiteko eskubideak ere badauzka. Horietaz baliatzeko, honako helbide honetara idatz dezake: SGAE Fundazioa, Zuzendari Nagusiaren arretara, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat joko ditu eta usteko du haren egungo egoerarekin bat datozela. Aldaketarik egonez gero, interesdunak gertatzen den unetik aurrera jakinarazi beharko du.

Hamargarrena: arau orokorrak

1. Eskatzaileak SGAE Fundazioaren logotipoa jarriko du argitaratutako diskoaren, bideoaren edo liburuaren karatulan eta horren promozioan; hauen artean publizitatea, kartelak, katalogoak, liburuxkak eta beste antzekoak. Gainera, honako testu hau gehituko dio: "SGAE Fundazioaren laguntzarekin".
2. Eskaera egiteak esan nahi du eskatzaileak dokumentu honetan ezarritako baldintzak eta oinarriak onartzen dituela eta baimena ematen dio SGAE Fundazioari, emandako laguntza Memoretan eta gainontzeko argitalpenetan zabaltzeko. Aipatutako arauetan adierazitako baldintzaren bat bete ezean, SGAE Fundazioak ez du esleitutako laguntza ordainduko. Dagoeneko ordaindu badu, hautatutakoak zenbateko hori itzuli beharko du, SGAE Fundazioak baldintzaren bat bete ez duela jakinarazten dion mementotik aurrera.

Lana hirugarren batek argitaratzeko diru-laguntza eskatzen duten autoreen kasuan, eskaera egitean fonografia-produktorearen, bideografia-produktorearen edo liburu-argitaratzailearen asmoen gutuna (kasu bakoitzean dagokionaren arabera) bakarrik aurkezten badute, sinatutako kontratuaren kopia (diskografia-kontratua, bideografia-produktzioaren kontratua edo liburuaren argitalpenaren kontratua) helarazi beharko dute, beranduenez 2018ko martxoaren 31n. Hori egiten ez badute, diru-laguntza galduko dute eta, dagoeneko kobratu badute, horren zenbatekoa itzuli beharko diote SGAE Fundazioari.

3. Eskatzaileak SGAE Fundazioa salbuetsiko du, eskatzaileak berak indarrean dagoen legea hausten badu, proiektua egiteari eta garatzeari dagokionez, zehazki, aurkeztutako lanen jabetza intelektualaren eskubideen % 100en errespetuarekin eta jabetzarekin lotutakoarekin
4. SGAE Fundazioak, kontratuari jarraiki, ez du hartzen ardura zuzenik ezta ordezkatzailerik proiektuari dagokionez, diru-laguntza eman den ziorako erabiltzen ez den kasuetan.

5. Dokumentu honi ezartzen zaion legeria Espainiakoa da eta alderdiek egokitu ahal zaien foru eskumenari uko egin eta Madrilgo Auzitegien jurisdikziopean egotea onartzen dute.

Informazio gehiago: informacion@fundacionsgae.org

SGAE Fundazioa- Diskoen, bideoen eta liburuen ediziorako diru-laguntzen deialdia

Bárbara de Braganza kalea 7

28004 Madril